

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Gazteei aisialdirako zuzendutako urteko jarduera programetarako dirulaguntzen 2024ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Gazteriaren Foru Erakundeak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak (2022ko urtarrilaren 5eko ALHAO, 2. zenbakia).

Gazteei aisialdirako zuzendutako urteko jarduera programetarako deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2023ko abenduaren 5eko bilkuran onetsia, aipatutako oinarri orokorretara eta hurrengo ataletan ezarritakora egokituko da.

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da 2023/2024 ikasturtean zehar haurrei eta gazteei zuzendutako eta gazteen elkarte edo erakundeek edo aisialdikoek sustatutako aisialdiko jarduera egiten laguntzea.

Jarduerak astialdian egingo dira, hau da, aisialdian, berdintasunaren, elkartasunaren eta tolerantziaren balioak sustatzen diren hezkuntza espazio gisa hartuta. Era berean, monitore talde egokia izan beharko dute aipatutako jarduerak garatzeko.

2. Elkarte edota erakunde onuradunak

Gazte elkarteak, astialdiko elkarteak edo aurrekoak koordinatzen dituzten federazioak, erregelamenduz eratuak eta irabazteko xederik gabeak, Araban edo Trebiñuko konderrian baldin badute beren egoitza iraunkorra edo ordezkaritza.

Baztertu egingo dira Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileen hirugarren klausulan adierazten diren erakundeak.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

Diruz lagundu ahal izango da 2023/2024 ikasturtean aisialdiko jarduerak antolatzea, baldintza hauek betetzen badituzte:

3.1. Diruz lagundu daitezkeen programak.

a) Jarraian garatzen diren aisialdiko jardueren programak, gutxienez bost hilabetekoak eta gutxienez hamabostean behin egiten direnak. Jarduera programa sei hilabeteen edo gehiagoan garatzen bada, jarraitutasun eza egon daiteke. Elkarteen federazioek ez dute bete behar denboraren eta jarraitutasunaren baldintza.

b) Parte-hartzaileen adina 7 urtetik gorakoa izango da.

c) Jarduera horiek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egin beharko dute, balioen aldaketa sustatuz eta sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak ezabatuz.

3.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Diruz lagundu ahal izango dira aisialdiko jardueren programak antolatzeak eta garatzeak zuzenean dakartzan gastuak.

b) Gastu horien artean sartzen dira, zehazki, aseguru kostuak, kuotak, alokairuak eta lokalak erabiltzeagatiko gastuak, telefono gastuak, langile gastuak, garraio gastuak eta, oro har, jarduera garatzearen ondorio zuzentzat har daitezkeenak.

c) Lokala beste elkarte eta/edo jarduera batzuekin partekatzen bada, deialdi honen xede diren jarduerari soilik egotzitako ehunekoa adierazi beharko da.

d) Jarduera garatzeko beharrezko materialak. 2023/2024 ikasturtean eskuratu behar dira, eta unitate bakoitzeko gehieneko kostua 1.200,00 eurokoa izan behar da. Packak edo kitak zatietan direnean bakarrik lagunduko dira diruz. Jarduerak garatzeko behar den material ez-suntsikorren gehieneko kostua 3.600,00 eurokoa izango da.

e) Kontratutako langileen gastuak diruz laguntzeko, ezinbestekoa izango da pertsona horien dedikazioa beharrezkoa izatea proiektua garatzeko. Federazio koordinatzaileek erakundearen koordinazioko eta/edo idazkaritza teknikoko langileen gastuak sartu ahal izango dituzte.

f) Joan-etorrien gastuak garraio publikoko tiketaren bidez edo joan-etorrien gastuen ziurtagiaren bidez frogatuko dira. Kilometro bakoitzeko 0,29 euro kontatuko da. Ez da onartuko erregaien fakturarik.

g) Elkarteko boluntarioen profesionalizaziorako prestakuntza gastuaren ehuneko 50a, Arabako eskola aitortuetan edo ikastaroak baimenduta dituzten beste lurralde batzuetan aisialdiko monitore eta zuzendari izateko ikastaroetan. Ikasleek 2023/2024 ikasturtean izena emanda egon beharko dute, eta prestakuntzaren zati teorikoa gaituta izan beharko dute dirulaguntza justifikatu baino lehen.

4. Diruz lagundu ezin diren gastuak

a) Udan egiten diren jarduerari dagozkienak (udalekuak, kanpamentuak, ibilaldiak edo auzo-landegiak).

b) Oro har, aniztasun ideologikotik, erlijiosotik eta abarretatik baztertzeko modua dakarten jarduerak. Zentzu horretan, ez da diruz lagunduko konfesio bakoitzaren fedearen kultureari edo hedapenari buruzko gastua edo alderdi politikoaren, sindikatuen eta abarren berezko jarduerak.

c) Eskola eremuko jarduerari buruzkoak: etxeko lanak, autoprestakuntza, etab.

d) Ondasun higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.

e) Ez dira diruz lagunduko lokalen alokairu gastuak, baldin eta erakunde eskatzailearen jabetza edo harekin lotura juridikoa duten beste erakunde edo enpresa batzuenak badira.

f) Materiala erosten den lekutik entregatzen den tokira garraiatzeko gastuak.

g) Telebistak, telefonoak eta material informatikoa erosteko gastuak.

h) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

5. Eskaerak aurkeztea

5.1. Eskaerak hogeiei egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, eskatzaileek aldez aurretik ziurtagiri digitala izan beharko dute (erakundearen ordezkariaren ziurtagiria). Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta erakunde egiaztatzaile baten jaulkitako egiaztari elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo atal honetara: ezagutu egoitza-nola sartu.

5.2. Erakunde eskatzaileak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen inpriman eskatzen den informazioa bete beharko du, eta horrez gain, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Jarduera proiektua:

– Helburuak.

– Plangintza eta garapena.

– Parte hartzaileen kopurua.

– Berariaz zehaztu beharko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen gauzatuko diren jarduerak eta helburuak.

b) Programa gauzatzeko aurreikusitako gastuen eta diru sarreren aurrekontu xehatua, Gazteriaren Foru Erakundeak eskuragarri jarriko duen ereduaren. Eskatzaileak adierazi beharko du beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuei zein laguntza eskatu dizkien eta zein ekarpen propio dituen.

c) Soldatapeko langileen zerrenda; zehaztu behar da zein lanpostu betetzen duten, zer ordutegi daukaten, kontratuaren datak zein diren, zer arduraldi daukaten eta horrek zer kostu daukan.

d) Parte-hartzaileen kopurua egiaztatzeko, eta kontuan hartuta ezinbesteko datua eta dirulaguntzarako irizpideetan balioestekoa dela, kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruia egiten duen erakundeak emandako frogagiri edo ziurtagiria aurkeztu beharko da, aseguraturako pertsonen kopurua zehazten duena, edo, bestela, parte-hartzaileen zerrenda, haien izena, deiturak eta adina adierazita.

e) Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko erabilgarri dauden baliabideak: monitore taldea, baliabide materialak, azpiegiturak, etab.

f) Erantzukizun zibileko eta osasun laguntzako indarreko aseguruaren ordainagiria, Eusko Jaurlaritzaren boluntarioen erroldan inskribatzeko eskatzen diren baldintzetan (ordainagiriarekin batera poliza aurkeztuko da, baldin eta baldintzak aldatzen badira, konpainia aldatzen bada, etab.).

g) Erakunde eskatzailea BEZetik salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana, edo erakundeko lehendakari kargua doakoa dela adierazten duen aitortpena.

h) Erakundearen estatutuak, eta deialdi honen egunean legez eratuta eta Elkarte eta kasuan kasuko Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duten agiriak eta IFZ. Erakundeek Gazteriaren Foru Erakundearen lehendik aurkeztuta badituzte, ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta geroago aldatetaren bat egin badute.

Eskaera elkarte edo federazio bakoitzak egingo du. Federazioek ezin izango dute eskaerarik egin beste erakunde juridiko batzuen ordezkari gisa.

Egoitza soziala beste lurralde batean duten baina Araban ordezkari izaten duten erakundeek agiri bidez egiaztatu beharko dute egoera hori, eta nahikoa izango da behin bakarrik aurkeztea, ondoren aldatetaren bat egiten denean izan ezik. Bestalde, egoitza sozialari dagokion Zerga Ogasunean zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, egiaztatu beharko du zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela eta ez diotela ezarri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako debekuren bat. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egindako egiaztariak aurkeztu behar ditu. Dirulaguntza 800,00 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipaturakoak egiaztatu beharko, bat etorritik 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean daudela adieraztea, eta Arabako Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztari egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

6. Aurrekontu baliabideak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Horretarako hornidura ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) eurokoa da, Gazteriaren Foru Erakundearen 2024rako aurrekontu proiektuaren 71100. G/232751/48100750 Dirulaguntzak irabazteko asmorik gabeko elkarteei aurrekontu partidaren kargura. Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten denean.

Beste zenbateko bat gehitu ahal izango da, gehienez ere hamar mila eurokoa, betiere aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da. Dena den, horrek ez du esan nahi beste eskaera batzuk aurkezteko epea irekitzen denik edo ebazteko beste epe bati hasiera ematen zaionik.

Dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera osatutako balorazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak.

Hauek izango dira dirulaguntza emateko eta horren zenbatekoa zehazteko balorazio irizpideak:

a) Aurrekontu partidaren ehuneko 50 elkarte eskatzaile guztien artean banatuko da, irizpide honen arabera lortzen dituzten puntuak direla-eta:

– Elkarte guztiei puntu bana emango zaie (horien artean, federazio koordinatzaileetan parte hartzen dutenak sartzen dira).

– Elkarteen erakunde koordinatzaile bakoitzari bost puntu emango zaizkio. Gainera, azken erakunde horiei baloratuko zaie zenbat elkarte biltzen dituzten, eta 0,50 puntu emango zaizkie elkarte bakoitzeko.

b) Gainerako zenbatekoa (beste ehuneko 50a) antolatutako jardueretan parte hartzen duten Arabako neska-mutilen kopuruaren arabera banatuko da.

Horretarako, irizpide bakoitzari dagokion aurrekontu partidako kopurua zatitu egingo da a irizpideak eta b irizpideak, erakunde guztientzako puntuazio baremoa aplikatu ondoren, lortutako puntuaren eta parte hartzaileen guztirako baturarekin, eta eragiketa horrek zehaztuko du puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta, ez badu gainditzen jardueraren gastua.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoa a) eta b) irizpideen zenbatekoen batura izango da.

Aurrekontu zuzkidura agortzeko behar adina banaketa egingo dira.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa memorian aurkezten den diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70 izango da, gehienez.

d) Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero 500,00 eurora heltzen ez diren eskaerak.

e) Elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du guztira 8.000,00 euroko zenbatekoa gainditu. Federazioek ez dute atal hau bete behar.

7. Balorazio batzordea eta ebazpena

a) Dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera osatutako balorazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak.

b) Aurkeztutako eskaerak deialdian finkatutako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak esleipen proposamenaren txostena egingo du.

c) Eskatzaileak ez du entzunaldiko izapiderik izango, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik.

d) Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia aldatzen duen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta antolatzeko eskumena duen organoak emango du ebazpena, eskabidea onartzeko edo ukatzeko, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

e) Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eskaeran adierazitako egoitzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan xedatutako moduetan.

f) Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekur-tsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari edo, bestela, administra-zioarekiko auzi errekurtsioa. Lehena aurkezteko, hilabete bat izango da, eta bigarrena aurkezteko, bi hilabete, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

8. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

Ehuneko 70 aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza ematean, eta gainerako ehuneko 30a hurrengo atalean zehazten den memoria aurkeztutakoan. Justifikazio memoria aurkezten ez bada, aurreratutako zenbatekoa itzuli beharko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan zehazten diren baldintzetan.

Dirulaguntza 20.000,00 eurotik gorakoa bada, nahitaezkoa izango da Ogasun eta Aurrekontu Saileko Idazkaritza Teknikoaren aldeko txostena.

9. Dirulaguntza justifikatzea

9.1. 2024ko urriaren 4ra arte, egun hori barne, elkarte eta erakunde onuradunek deialdian diruz lagunduko diren jardueren azken memoria aurkeztuko dute egoitza elektronikoaren bidez, erakundeak berak emandako ereduari; honakoak izango ditu gutxienez aipatutako memoriak:

a) Egindako jarduerak, honako zehaztasun hauekin: data, parte hartzaileak, lekua eta ikas-taroaren balorazio orokorra.

b) Laburpen ekonomikoa:

1) Gastuen zerrenda.

2) Gastuen eta diru sarreraren balantzea (izandako gastuak eta diru sarreraren deskribapenarekin).

3) Diruz lagundutako elkarte edo erakundearen izenean egindako gastuen fakturak edo egiaz-tagiriak, jarduerak egiteko gastuen guztizko zenbatekoarenak.

– 200,00 euro baino gutxiagoko gastuen fakturak aurkeztuz gero, gastuen justifikazio sinpli-fikatua aurkeztu beharko da, honako datu hauek jaso beharko dituenak: data, hornitzailea, kon-zeptua, zenbatekoa eta ordainketa data.

– 200,00 euro baino gehiagoko gastuen fakturak aurkeztuz gero, ordainduta daudela egiaz-tatu beharko da.

Gazteriaren Foru Erakundeak laginketa tekniken bidez eskatu eta egiaztatuko ditu bidezkotzat jotzen dituen frogagiriak, nahitaez aurkeztu behar ez direnak; horretarako, hautatutako gastuak bidaltzeko eskatu ahal izango du.

4) Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria, justifikazio datan in-darrean ez bazegoen.

5) Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.

6) Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2024rako indarreko araudian ezartzen den zen-batekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan). Ondasun ematea edo zerbitzu egitea zatika egin bada, aipatutako zenbatekoa kalkulatzeko, batu egingo dira hiruga-rren berarentzat egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Diruz lagundu ahal izango da gizarte izaera duten erakunde edo elkarteek eskainitako zerbi-tzuengatik bere gain hartutako BEZa, izaera hori aitortuta izan ala ez, baldin eta egoera bakoi-tzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badituzte (BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikulua, arau horren 20. Bat artikulua 8. apartatua jasotako zerga salbuespena egiteko).

Erositako ondasunen benetako balioarekin bat ez datozen gastuen fakturak aurkezten badira deialdi honetan materialak erosteko ezarritako mugetara egokitzearen, legezko erantzukizunak sortuko dira, bai elkarte eskatzailearentzat, bai erakundearen ordezkari diren pertsona fisikoentzat.

c) Langile gastuen justifikazioa:

Nahitaez aurkeztu behar dira soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa eta ordainagiriak.

Langilearen edo soldatapekoen lan egoera zehaztu beharko da, honako hauek jasotzen dituen taula bat aurkeztuz: langileak, arduraldia, hilabetea, soldata likidoa, PFEZren atxikipena, langileek gizarte segurantzari emandako zenbatekoa, enpresak gizarte segurantzari emandako zenbatekoa eta guztizkoa.

Halaber, erakundeak kontratatutako pertsonen jatorrizko nominak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira beti ere, haiek proiektuari eratzikita dauden aldikoak. Soldatak ordaindu izanaren frogagiri gisa, ondoko hauetako edozein onartuko da:

– Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

– Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, adierazten duena langileak zenbatekoa kobratu duela dagokion hilabeteagatik.

– Edo banku erakundeak digitalki sinatutako banku laburpen bat, nominen ordainketa taldekatuarena. Horrekin batera, enpresa/erakunde onuradunaren ziurtagiri bat aurkeztuko da, eta bertan zehaztuko da kasuan kasuko langileen nominak transferentzia horren bidez ordainduta daudela eta langile bakoitzari zer zenbateko dagokion aurkeztutako hileko bakoitzeko.

Horrez gainera, nahitaez aurkeztu beharko dira RLC eredia (Kotizazioen Likidazioen Zerrenda) eta RNT eredia (Langileen Izen Zerrenda), bai eta dagozkien kotizazioak ordaindu izana frogatzen duten agiriak ere.

Elkarteez eta erakundeek baimena berariaz emanez gero, ez dira zertan aurkeztu hiru hilez behin aurkeztu beharreko eta jada aurkeztutako 110 ereduak, PFEZaren gaineko atxikipenak eta konturako diru sarrerak eta haien ordainagiriak, ez eta 190 eredia, atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko laburpena ere.

9.2. Era berean, dirulaguntza eman duen ebazpenak xedatutako beste edozein agiri aurkeztu beharko da.

10. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino gehiago.

Dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen badira, edota diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten beste ekarpen batzuk lortzen badira aldi berean.

11. Argitaratzea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 27a

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea
JUAN JOSE ROJO BAZAN